

Aurtengo kirol jertseak Anne Baskaranen sormena izango du. Zorionak!

Dec 17, 2015

Amaitu da MONDRAGON UNIBERTSITETEKO kirol jertsearen 3.diseinu lehiaketa eta epaimahaiak 5.diseinuaren aldeko ebazpena eman du. Aurtengo edizioan aurkeztu diren 20 diseinuetatik gustokoena izan da Ikus-Entzunezko Komunikazioa 2.mailan ikasten ari den Anne Baskaranek sortutako 5.diseinua. Zorionak!

Epaimahaiaren iritziz, "diseinu honek kirola eta osasuna lotzen ditu, gainera kirolarekiko maitasuna adierazten du". Bestalde, "jertsean ondo txertatzeko aukera ematen du" diseinu honek. Hobekuntza proposamen bat ere egin du, iruditzen baitzaio "MUko logoa pixka bat urrun gelditzen dela" eta "gertuago jarrita hobeto geldituko zela".

Dena den, esan beharra dago ebazpena ez dela batere erraza izan, lan asko kalitatezkoak iruditu baitzaizkio epaimahaiari. Amaierararte 3.diseinua eta 19.diseinuarekin ere zalantzak izan dira eta.

Kirol Zerbitzuko langileok antolatzaile garen aldetik, eskerrak eman dizikiegu parte hartu duten ikasle eta langile sortzaile guztiei eta horrelako ekintzetan parte hartzen jarrai dezaten animatu nahi ditugu. Datorren ikasturtean ere izango da 4.edizioa, beraz, jada zuen lanen zain gaude. Milesker!

15/16 ikasturteko diseinu guztiak ikusgai



MUko kirol jertsearen 3.diseinu lehiaketako irabazlea

